

baleike

www.baleike.com

2006ko MALATZA,
144. ZENB. DOHAINIK

zumaia - sahara

darahli 06



SANTELMOAK PASA DIRA. ETA GUK ORAINDIK GOGOAN...

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Azalaren argazkia

Ines Aseginolaza

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94


ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
ze berri	6
argazki erreportajea san telmoak	10
orain hamar urte	14
erreportaje berezia darahli 06	15
elkarrizketa nuria l. de gereñu	28
olarru zopa	33
kirola herriko neskak	34
zine forum	37
agenda	38



nuria lopez de gereñu **AHT eta beste kontu batzuk**

AHTren aurkako ekitaldia antolatu
zutela eta, Garraio sailburuarekin
jardun dugu horretaz eta beste
hainbat kontutaz.

BALEIKERen bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:30etik 18:30era

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



Etxebizitza, bizitzeko ala bizitza etxebizitzaren truke?

Aspaldidanik etxegintza sektorea istilu eta polemikaz betetik azaltzen zaigu, zurrumbilo ikaragarri bat non etxegile, udal, banka, aurrezki kutxa, inmobiliaria, notaritza, espekulatzailerak eta abar, era desberdinean bada ere, ur zorabiatu horien eragileak diren. Diru asko mugitzen den arlo da, eta jakina, marrazo ugari inguruka. Mahuka leku bihurtu da etxegintza, eta egun inor gutxi harritu gara Marbellan gertatuarekin, zeren eta praktika hau edo antzekoak oso zabalduak daudelakoan baikeude.

Etzegileek eta Banka dira (bata bestearengandik bereiztea gero eta zailagoa bada ere) zurrunbilo horren indar nagusiak, dinamika markatzen dutenak, alegia, eta Administrazioa (Gobernu, Foru Aldundi, Udal, etab.) eta alderdi politikoak beraiek ere ez dira gai dinamika horri aurre egiteko eta gutxiago oraindik norabidea aldatzeko. Haiengandik trukean jasotzen dituzten "mesedekin" (frontoi, parke, bariante, kirol taldeen babesle edo antzekoak) konformatu behar. Idi izan beharren gurdi bihurtu dira.

Eta zurrunbiloaren erdi erdian, itotzeko zorian, agente baino gehiago paziente edo pairante den etxebizitzaren eroslea dago. Figura garrantzitsuena bada ere (haren bizkarretik ari baitira denak) guztien menpe dago. Erosleak ezer gutxi erabaki dezake.

Etxegileak esango dio zenbat, nola (beltz, zuri edo zein koloretan) eta noiz ordaindu. Eta diru bila banketxera hurbiltzen denean beste hainbeste.



Karmelo Arroiabe

Eroslearen larritasun egoera azken muturreraino eramán da, itotzeko zoriraino. Gazte bikoteak euren soldatekin etxebizitza erostea ezinezkoa dute gaurko prezioetan. Hipoteka maileguari ezin diote inolaz ere aurre egin. Egoerak tope jo du. Baina eroslea itotzea ez da komeni, bestela akabo guztia!! Eraikuntza ekonomiaren motorra omen (marrazo horien ekonomiarena, batez ere). Eta makinak martxan jarraitu beharra daukanez, eta egoera bere azkenetan dirudienean, hara non agertzen zaigun Banka, Jainkoaren eran (estutu bai, baina ito ez), Salbatzaile gisa, azken inbentoa aurkeztuz: hipoteka mailegua 50 urtetara. Hau 35 urtetik beherako gazteentzako aurkeztu da; mailegua errazago eta erosoago ordain dezaten. Orain arte 25 urtetan ordaindu badugu, aurrerantzean 50etan. Langile aktibo zaren bitarteko soldataz gain jubilatu izaten zareneko pentsioa ere manejatu nahi dizute. Orain arte, etorkizuna prestatu beharra zegoela zioten, Pentsio eta Jubilazio Planetan aurreztu, zahartzaro zoriontsua aurreikusiz. Inbento berri honekin hau dena sobran dago. Plan bakarra gelditzen zaizu: bizitza osoan etxebizitza ordaintzea!!

Egora honen aurrean egin dezakegunaz ideiaren bat baldin baduzu, orrialde hauetan idaztera gonbidatua zaude, irakurle. Jarraituko dugu!!

dani



Aguaplastaren dekalogo



xa2

Lau zenbaki erakutsi dizkit ordenagailuko pantailak: 23:36. Gauak estali du eguna, eta teklatuan tiki-taka dabilzan behatzak zuri kolorez narrastuta dauzkat. Esan baldin banuen, esan nuen. Logela berritu behar genuela, guk geuk, geure-geurean, guretik eta guretzat. Apal berri batzuk jartzea besterik ez zen hasieran, baina...

Hilabete pasatu dut hauts zuriz inguratuta.

Nahiz eta aitatzok askoz ere lan gehiago egin, jakinarazi nik egin dut lau haizeetara. Mingain alperrea izatearen kontuak, badakizue. Beno, espatula eta aguaplasta bezalako bikoterik ez dago brikolajearen erresuman. Lana eta nekea ematen dute galanki, niri behintzat bizkarraldea eta sorbalda gainak minberatu dizkit. Buruz gora sabaian aguaplast ematen jarduteak ebasioa ekarri dit, delirioa ere bai batzuetan. Michelangelok nola bukatu ote zuen Sixtotar Kapera

margotzen? Markak hausteko moduko lunbagoarekin, seguru!

Harira. Lantokiko ordenagailu mutu hori utzi, eta gauza praktikoagoak egitearen sentipena izan dut egunotan. Erabilgarria naizela ikusi dut. Aguaplasta oso bisuala da, zuloak tapatzen ditu, esker oneko lana da. Ezertarako balio ez duten gauzak egitearen irudipena izaten dut askotan lanean. Aguaplastarekin ez zait holakorik bururatu. Egindako lana, ezagun. Gainera, merezi du norberaren fruituak ikustea eguneroko logelan. Adreiluak jartzen ez dakigula dirudi, ez garela gai kableak pasatzeko, hormak margotzen arrastorik ere ez daukagula. Ba, ez! Dena egiteko gai gara, baina txipa aldatzea kostatzen da. Marrubizko bizitza honetan leloa aldatu beharra daukagu: pentsatu, sentitu, ekin! Kanpoko igeltseroak, etxeok ez diren arotzak, noranahi doazen argiketariak egin izan balute lan hau, ez nuke berdin egingo lo hemen. Ardiak kontatzerakoan, neure burua ere kontatu egin beharko nukeen. Ametsek ere, beste kolore bat lukete.

Baina beldurtuta nago. Gure etxe zaharreko paretak oker txulodunak sakonune eta tripaz beteta daude, eta aguaplastaren dekalogo entziklopedia ari zaigu bihurtzen. Noiz iritsiko da pintatzeko garaia?!

PD: Aguaplastaren dekalogoan, aitari eskerrak, amari eskubiak, eta osabaren antxoak mundialak!



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

dekorazioa
ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Emilio Perez
Elektronika, telefono eta instalazio
elektronikoen salmenta eta konposaketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

Kudeaketa Plana: euskara txanpan!!

Herrian euskara normalizatzeko planaren barruan, 2006ko KUDEAKETA PLANA aurkeztu dute maiatzean.

EBPNren (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren) bigarren urteko planaren aurkezpenean adierazi zutenez, Euskara Zerbitzua sendotu nahian Zumaia Udalak Euskara teknikaria kontratatu du behin betiko izaeraz. Euskara teknikariak gainera, Udaleko arduradunek ziurtatu zutenez, EBPNko teknikaria ere izango dugu herrian euskara normalizatzeko lanean. Horixe izan omen da aurtengo lorpenik handiena.

Udaleko ordezkariak eskerrak eman zizkieten Euskararen Aholku Batzordeko kideei beraien ekarpen eta elkarlanarengatik, Euskara Zerbitzuan garatzen dituzten ekintza eta jardueren abiapuntua behin baino gehiagotan Euskararen Aholku Batzordea izan delako.

Euskara transmititu, erabili, eta elikatu

Maria Eugenia Arrizabalaga alkateak eta Euskara batzordeburuak eman zuten planaren berri, eta martxan dauden edo egongo diren ekimenen berri ere bai. Hiru zatitan banatu dute kudeaketa plana: euskararen transmisioa, euskararen erabilera, eta euskararen elikadura. Zumaia guztiei «euskararen alde aritzeko» gonbitea egin zien, «euskara normalizatzea denon artean lortu beharreko helburua delako».

Zumaian euskara belaunaldiz belaunaldi igarotzea «bermatuta» dagoela esan zuen alkateak, «ikastetxe guztiak D ereduak izateaz gain, eskolatik kanpoko jarduerak, oro har, euskaraz egiten direlako». Hala ere, lana badagoela gogoratu zuen; esaterako etorkinekin. Horiek euskalduntzea ez da erraza, baina «ahaleginetan» ari direla esan zuen. Lehen Hezkuntzan ikasten duten etorkinentzako antolatu duten Alea Tita Konba ekimena nabarmendu zuen. Urte hasieratik, asteen hiru aldiz elkartzen dira umeak Ludotekan begirale batekin, eta programa bat lantzen dute. «Orain arteko balorazioa oso positiboa» dela esan zuen alkateak. DBHko ikasle etorkinen-



tzat ere bada ekimenik: asteen bitan elkartzen dira Forondan. Bestalde, 'AISA', gazteekin udazkenean abiatuko duten egitasmoa da.

Euskara ikastaroei dagokienez, aurtan ere ikastaro bereziak antolatuko dira, eta AEKk gurasoei ematen dienaz gain, merkatariarentzat berezia izango den beste bat jarriko dute abian, «beraien ordutegietara eta beharretara egokitutakoa».

Ohikoak diren beste ekimen batzuekin ere jarraituko dute: iaz hasitakoari segituz, eskoletan bertsolaritza lantzeko programa emango dute; irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak egingo dituzte; eta euskara ikasteko diru laguntzak banatuko dituzte.

Alkateak gogoratu zuenez, herrian euskararen ezagutza maila handia izan arren, erabileraren eremua ez da hain handia. Erabilera bultzatzeko ekimenen artean, batek Udal du ardatz, udaletxeko langileek eta Udaleko zerbitzuek Erabilera Plana garatuko dutelako. Lan luzea izango omen da: euskarak

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUSKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

langileen artean duen egoera aztertu eta, ondoren, plana egin-goto dute, «langileen trebakuntza beharrak aztertuta, neurri era-ginkorrak hartzeko».

Toponimia Mapa ere aurten aurkeztu dute Imanol eta Xabier Azkuek. Herriko leku izenak aztertzeko egin dute, eta horri jarraituz, Toponomia Mapa kaleratuko du Udalak. Herri-ko toki esanguratsuenak zabaldu, eta «gerora etorriko diren beste argitalpen batzuen lehen urratsa izango da».

'Lanera!' ekimenaren baitan, Urola Kostako Udal Elkartea-aren babesean, enpresak euskalduntzeko ekimenarekin jarrai-tuko dute.

Aurten Merkataritza Euskalduntzeko Planaren bigarren fasea garatuko dute, eta helburuen artean, zerbitzuetako lan-gileekin lanean hastea da, Merkataritza Planera bil daitezen. Hartara, arlo horretako sektore guztiak bilduko lituzkete, eta

Udalak «beraiek proposatutako ekimenak jarriko ditu abian».

Kale erabilera neurtzeko asmoa ere aipatu zuten. Sozio-linguistikako Klusterrak Euskal Herri osoan egingo du, herriz herri, euskararen erabilera neurtzeko kaleko azterketa. Zumaian udazkenean hasiko dira lanean, eta Udalaren asmoa da, horrelako lanak aldian behin egitea, «horren arabera neu-riak hartzeko».

Euskara elikatzeari dagokionez, herriko euskara ikertze-ko bekak, esate baterako, Zumaia-ko hizkeraren ezaugarriak eta bitxikeriak bilduko ditu, «ondorengoentzat gorde ahal izateko». Lan horrekin, geroago garatuko diren beste egi-tasmo batzuen oinarriak jarri nahi ditu Udalak.

Bestalde, lehen ere egiten diren jarduerekin jarraituko du. Hala, Euskara Kiroltasunez jaia berriz antolatuko dute, adibidez.

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA

Nola idazten ote da euskaraz...??

Hitz horrek H-rik ba ote dauka? Beste hura TS-z edo TZ-z idazten da? Nola esaten da "proveedor" euskaraz? Interneten non daude hiztegiak? Hutsune hori betetzeko asmoz, mer-katarientzako ikastaroa antolatu du Euskara Zerbitzuak.

12 orduko ikastaro berezia izango da, eta Foronda kultur etxean emango dute: maiatzaren 19, 22, 24, 26, 29 eta 31n, 14:30etik 16:30era bitartean. Batez ere praktikoa izango

omen da, eta gaiak honako hauek izango dira: zenbakiak nola idatzi, datak, orduak, txkeak nola bete, prezioen orto-grafia, oharrak nola idatzi...

Izena emateko, udaletxeko Euskara Zerbitzukoengana jo behar da, telefonoz (943 86 50 25) edo posta elektronikoz (euskara@zumaiaikoudala.net).

Maiatzaren 17ra arteko epea daukazue!!

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



tresna digi-
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Bejondeizula, Maialen!

JOANITO DORRONSORO

Santelmo festa ondorengo ostiral gauean, apirilaren 28an, San Prudentzio egunez jokatu zen Zumaiaiko azken bertsolari txapelketa herriko jubilatutako etxean, 100 lagun afaladarren arteko giro beroan. Zortzi bertsolari gazte hartu zuten parte; Unai Gijarro (azken bi urteotako txapelduna) eta haren anaia Jokin, J.J. Aizpurua (88an txapeldun izana), Manex Elola, Maddi Gallastegi, Josu Manzisidor, Markel Peñalba eta Maialen Velarde.

Lekuz aldatu dugu aurten. Orain arteko zazpi saioak Anade elkartearen jokatu badira ere, bagenekien era honetako ospakizunak endredo ugari sortzen dizkiola elkartearen bazkide denak festetan murgilduta dabilzan egunotan, eta horregatik herriko jubilatutako etxean egitea erabaki dugu aurten. Festa giroan marinez jantzitako gazte jende bertsozaleak bete zituen janlekuko mahai gehienak. Bertso giro aparta. Zortzi bertsolariak gazteak eta publikoa ere bai, horra jaialdiko protagonistak zaharretxean.

Jon Maiak zuzendu zuen bertso saioa, berak asmatu eta eman zizkien maisuki gaiak ariketaz ariketa. Epailan lanetan berriz, aurreko urteotako hirukote bera, Baxakarte, Josu Garate eta Imanol Lazkano. Sailkapenei buruzko egituraren aldakuntzatxo bat egin da aurten; aurreko zatian bertsolari guztiek kantatu ondoren, bi bakarrik aukeratu dira bigarren zatirako. Joxe Joakin eta Maialen sailkatu ziren txapelaren bila nor baino norgehiago buruz buru joka zezaten. Ez dut uste inor harritu zenik hautaketa honekin. Saioa hasi bezain pronto konturatu ginen entzuleok, Aizpurua lehengo lepotik daukala burua, eta lanak emango zizkiela zazpiei. Maialen gazteak menderatu du hala ere oraingoan veteranoa. Erabaki honek ere ez zituen bada harritu entzuleak, ez horixe.



Bere buruarekin seguru, kantakera aparta, arrazoieta sendo eta bertso teknikaz urtez urte jantzen ari zaigun Zumaiaiko txapeldun berriari etorkizun ona opa diogu. Azken bi urteotan txapela buruan zenbait plaza eta saiotan zehar bertsoetako ofizioan trebatu zaigun Unai jatorraren lekua Maialen gazteak hartzeak, on egin diezaiok honi, eta baita gure bertso eskolaren irudiari ere. Bertsozalea asko poztu zuen Joxe Joakin saioak, hori garbi baino garbiago adierazi zuen publikoak bere txalo zaparradekin. Unai ez zuen porrot egin, hori badakigu denok. Agian berandu xamar esnatu zela, berak zioen moduan. Markel eta Jokinek parez pare jaso zuten publikoaren saria. Josuk ondo irabazita dauka herriko bertsozaleen estimazioa; badugu honen beharra herrian, bai bat-bateko txapelketan eta bai Gabonetako idazketa saioan huts egin gabe parte hartzen duelako. Bertso gintzaren maila goraka doa urtetik urtera

dekorazioa

ALBERDI


696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com



Koop. Elk.

Nekazaritza

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...
aholkularitza teknikoa,

Balorazioak

Injineru Teknikoak



eta, Maddik bertsoan kantatu zuenez, horrexek izan zuen errua bera, Manex eta Josu ez nabarmentzearena, zorione-ko errua. Denok ezin irabazi, baina galtzailerik ez da izan inor. Herriko euskaldun guztiok irabazi dugulakoan nago. Euskal kultura jaso nahian gabiltzanontzat aurrerako bul-zadatxoa dira horrelako ekitaldi xumeak.

Ez nuke nahi bukatu eskerrak eman gabe Jon Maia, Ima-nol Lazkano, Baxakarte eta Josuri, urtero musu-truk egiten duten lan esker txarrekoagatik, eskerrak antolakuntzako bizka-rrezurra dugun Xabier Azkue adiskideari. Jaialdia oroimenean gorde dezagun lagungarri, Marieta Azkuek grabatu zigun bide-
oan aurtan ere. eta kronikatxo honen amaiera letrak bihoazkie
esker onez Anade elkarteko zuzendari taldeari, hainbeste urte-
tan gure zerbitzura hartu izan duten ardura guztiagatik.

Bejondeizula, Maialen, aupa beste zazpiok! Datozen
santelmoetan hurrengoa, beste urtebete gelditzen zaigu.

Gau hartako bertso batzuk:

HAMARREKO TXIKIAN OFIZIOKA

Bezperako parrandaren ondoren zuek biok Itzu-
rongo txoko batean esnatu zarete; elkarri begiratu
eta ez duzue elkar ezagutzen.

MAIALEN (2. bertsoa)

Tinbrean bakarrik ez
seguru zeharo
atzo hartu genitun
makina bat trago
ta ez gogoratzea
agian nahiago
nere oroimenean
gauza bat badago
ilunpetan zinela
askoz politago

JOXE JOAKIN (3. bertsoa)

Esnatu eta alkar
hortxe bat-batean
zerbait gertatuko zan
gaur gure artean
baina zuretzat nonbait
hori ez suertean
ez zedila izan ez
inoren kaltean
beti gordeko zaitut
subkonszientean

PUNTUARI ERANTZUNAK (MAIALEN)

*Zer ote du bertsoak
pozten gaituena*

espresibitate ta
sentimenarena
harekin hustu ohi dut
nik sarri barrena
bertsoak ematen dit
ez daukadan dena

*Zumaian bertsozale
ugari ditugu*

hori izan genuen
aspaldi helburu
eta aurrera doa
nik daukat seguru
eta luze horrela
jarraituko dugu

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330

Joan dira... Santelmo

IURE ALTZIBAR

Oraindik balkoiren batean alkandora edo zapi urdina ikustea kasualitatea dela esan daiteke; duela bi aste saskiaren barrenean geratutako arropari garbitzeko ordua iritsi zaion adierazgarri. Izan ere, joan zaizkigu santelmoak.

Etorri bezala, zarata artean joan ere. Lehen ostiral hartan bertso saioa eta ZUGAk antolatutako txupinazoa izan ziren hotsaren arrazoiak; azken igandean, berriz, bandera jaitsiera izan zen zarataren zergatia. Tartean, eta ondoren ere bai, festak bere bidean!

Denetarik ikusi ahal izan dugu: urteroko ekitaldiak, berrietasunak eta jada San Telmo jaiak bezain ohiko bihurtu den euria. Txupinazoa, danborrada, musika emanaldiak, herri bazkaria, bandera igoera, etab. izan daitezke lehenengoen erakusle. Ez dira, ez, gauza berriak falta izan (askok aurkakoa uste badute ere): noiz izan da txupinazoa ostiral gauean edo noiz egon ziren azkeneko aldiz Zumaian bost txosna?



oak!!!



Gainerakoan, jendea nonahi, urtero bezala. Batzuetan gehiegi eta besteetan neurrian. Egongo da "gehiegi inoiz ere ez" pentsatuko duenik, baina galde diezaiotela herri bazkarira joan eta lekurik ez zuenari, edo gauean tabernako komunetara joan eta ilara luzean zain egon behar izan zuenari. Hala ere, eta behin baino gehiagotan entzun izan den kontua da, ez omen da aurreko urteetan adina kanpotar etorri. Beraz, neurri orekatua atsegin dutenak gustura izango dira aurtengoan.

Joan dira, eta, ondorioz, datorren urtera arte ezingo da Erribera kale urdinik ikusi (aurten Divergentes ez dator, ezta?) edo bandera batekin herri oso bat kantuan jarri. Tarteko egunetan ere izango da, bai, zer ospatua eta orduan ikusiko dugu elkar; bestela, datorren urtera arte.



Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airtoa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantí
español
cataloní
suomi
basc
català
finnois
francés
anglés
catalán
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Orain 10 urte... Zumaian umeak nork zaintzen zituen galdetzen genuen. Aiton-amonak, eta, gaizki ordainduta, neska gazteak aritzen omen ziren orduan umezain. Lana amaituko ote zitzairen orain, haurtzaindegiak zabaldu dituztela eta?... Ez dakit, ba... Zumaian gero eta ume gutxiago jaiotzen omen ziren orduan, baina 10 urtetan makina bat aldatu dira gauzak... Santelmoetan, bai, lan egin dute umezainek... Izan ere, guraso asko ikusi ditugu kalean, umerik gabe...

Orain 10 urte ateraz ziren telebistako saio batean Piru eta konpainia; bigarren gelditu eta Santo Domingorako bidaia irabazi zuten. Hori mauka postu horretan geldituta! Txiskola edo... Aurkezleak badu orain ere beste saio bat ETB1en. Eskerrak orain ez den bera bakarrik ateratzen... Zenbait gustura ibiliko zen, berriz, Karibe aldean...!!

Orain 10 urte...kirolen artean aerobic, etenik gabeko dantza dela idatzi genuen. Amaiak ematen zituen orduan ikastaroak. Makina batek egin du "dantza" ordutik... eta spinning, eta pilates... eta... Aerobic? Zer da hori?...

Orain 10 urte ere atera genituen Santelmoetako argazkiak aldizkarian. Lasai egon zaitezke; aurten txintoak izan zarete, eta ez dugu ia inor konpromisoan harrapatu... ez orduan bezala!



TABERNA

ZALLA
Taberna - Erretegia

- * *plater konbinatuak*
- * *otartekoak*
- * *oilasko erreak*

Tel. 943 862387

D A R A H L I 0 6 Z U M A I A



Mendebaldeko Saharan izan ziren astebetez herriko 100 ikasle eta irakasle, hango bizimodua ezagutu eta elkartasun lanak egiteko. Baleike-ren Liburu eta Disko Zaharren azokan jaso zen diruarekin erositako botikak ere eraman zituzten.

Han bizitako esperientziak bertan ibilitakoen ahotik ezagutu ahal izango dituzue; izan ere, han izan zen Aitor Manterola kazetaria, eta bere egunez egunekoan kontatzen dizkigu. Gainera, BALEIKEko kazetariekin hitz egin dute han izandako hainbat lagunek. Eskerrik asko denei: Samuel eta Ibon irakasleei; Irune, Ane eta Andrea ikasleei; eta Ines medikuari.



Argazkiak: **Aitor Manterola, Samuel eta beste irakasleak.**

AITOR MANTEROLA

Duela bi urte ereindako hazia izan da Herri Eskolako eta Maria eta Jose ikastetxeek elkarlanean gauzatu duten ekimena. Ikasleek Mendebaldeko Saharako egoeraren berri izan zuten orduan, eta erabat liluratuta gelditu zirenez, zerbait egin behar zela bururatu zitzairen. Zerbait hori errefuxiatu sahararrek Tindufen (Algerian) dituzten kanpamenduetara joatea zela pentsatu zuten, eta esan eta egin. Apirilaren 6an abiatu eta 13an itzuli arte, hango egoera ezagutu eta sahararrei laguntzeko aukera izan genuen Darahli ekimenari esker. Azken batean, horixe zen helburua: hango eta hemengo gazteek hassanieraz darahli egitea, eta euskaraz besarkatzea.

16, 17 eta 18 urteko 80 bat ikasle joan ziren, dozena bat irakasle, Maria Eugenia Arrizabalaga alkatea, Ines Aseginolaza sendagilea eta hiru kazetari. Horixe da iragarritako zegoena, baina ezustez ezuste bizi izan genuen bidaiaren kronika.

APIRILAK 7, OSTIRALA: IZARRAK ETA DUNAK.

Zumaia eta errefuxiatu sahararren kanpamenduen artean dagoen tartea egiteko ia 12 ordu behar izan genituen. Umeek egunak kontatzen dituzten bezala kontatuta, bi egun: ostegunean atera eta ostiral goizaldean heldu.

05:00ak ziren kamioi batzuetan sartuta kanpamenduetara heldu ginenean. Ilunpetan zegoen dena, baina lehen aldiz ikusi genituen saharar batzuk. Gure bila etorri zirenak ziren. Gu etxeetan hartu behar gintuztenak.

Dena zen ezezaguna guretzat. Baita zerua ere. Izarrez gainezka zegoen, eta guztiok harrituta begiratzen genien, erabat liluratuta. Kamioian izan genuen gozatzeko aukera, baina han ez zegoen tarterik. Elkartasunezko laguntza osatzen zuten kaxa guztiak udaletxeko gelarik handienean laga behar ziren, eta denok murgildu ginen horretan. Gure bila joandako sahararrak begira genituen.

Edcheran geunden, eta ez hasiera batean aurreikusita zegoen Dora-n. Aldaketak izan ziren, eta astebete han igaroko genuela esan ziguten. Gaua zenez, eta zerua izan ezik, beste dena ilunpeak hartua zuenez, bost axola Edchera edo Dora izan.

Lanak bukatuta, bospasei laguneko taldetan banatuta, sahararren aginduetara gelditu ginen. Oinez, haimetara (telazko etxeak) edo beitsetara (lurrezko etxeak) eraman gintuzten. Logurak jota geunden, eta lotarako gogoz. Familiak zain genituen, ordea, eta han hasi ginen sahararren izaera ezagutzen: gauaren erdia izan arren, bertako asko esna zeuden, eta laguntzeko prest. Ura eta mantak eskaini zizkiguten, eta lotara joan ginen.



"Gauaren erdia izan arren, bertako asko esna zeuden, eta laguntzeko prest. Ura eta mantak eskaini zizkiguten, eta lotara joan ginen"



07:00ak aldera argitu zuen egunak, baina beste ordubetez-edo lotarako zakueta sartuta egon ginen. Sahararrak ordurako esna zeuden, eta hain estimatua duten tea elkarrekin hartzeko gonbitea egin ziguten. Ondoren, gosaria etorri zen.

Eguna argitu eta berriz denak elkartu ginenerako, ohartu ginen zein zen hango egoera: hondarra, beroa, lehortea eta etxetxoak. Hasierako irudipena gogorra izan zen. Bertakoen aldartea, ordea, guztiz bestelakoa zen: sekulako energia, indarra, elkartasun keinuak, eta umeen bizi poza.

Berehala nahastu ginen sahararrekin. Edchera barruan hartzen duen Aaiun probintziak III. Fisahara Zinema Jaialdia antolatu zuen, eta sekulako giroa zegoen: jendea hara eta hona, kazetari mordoa, eta bertakoak ikusmiran. Gu ere batera eta bestera ibili ginen, bazkaltzera norbere etxera joan artean.

Arratsaldea lasaia izan zen, eta atsedean hartzeko baliatu genuen.

Gauean, dunetara eraman gintuzten. Zinema Jaialdiaren baitan, kontzertua antolatu zuten, eta han bildu ginen guztiak: sahararrak, Zinema Jaialdira joandakoak eta gu. 02:00ak aldera oheratu ginen.

APIRILAK 8, LARUNBATA: GANBELUAK ETA AURRENEKO LANAK

Bezperan baino lo gehixeago eginda esnatu ginen. Gosaldutik ondoren, denon bilgunea zen udaletxean elkartu ginen. Gantelu lasterketa zegoen han inguruan, eta bertara joan ginen, handik aurrera gure garraio bideak izango ziren bi kamioietan sartuta. Bero handia egiten zuen, baina han egon ginen lasterketa ikusten. Gero, ganteluen gainean jartzeko aukera eman ziguten, eta asko izan ziren aukera alferrik galdu ez zutenak.

Bazkaldu eta gero, atsedean hartu beharra zegoen. Arratsaldean, aurreneko elkartasunezko lana egin behar zuten ikasleek: otsaileko euriteak eraitsitako udaletxeko horma bat altxa. 17:00ak aldera elkartu ginen. Beroa lepo. Hala ere, lanera. Taldeka banatuta jardun zuten ikasleek: batzuk harrien bila joan ziren; besteek eraitsitako horma garbitu zuten aitzur-rekin; hirugarren taldeak zuloa egin zuen lurrian, kamioiak ura bertan bota eta masa egiteko.

Denen artean, horma erdia altxatu zuten, hango pare bat igeltserok lagunduta. Ikusmina eragin genuen, eta bertakoez gain, Zinema Jaialdira joandako kazetari batzuk ere gerturatu ziren. "Gracias, gracias", esan zigun adineko saharar batek.

APIRILAK 9, IGANDEA: LANEGUNA

Sahararrekin ia iritsi ordutik egin genituen harreman onak, eta egunak aurrera joan ahala, agerikoa izan zen hori: ikasle batzuk sahararren ohiko arropak jantzita azaltzen ziren, eta eskuetan henna eginda zutenak ere gero eta gehiago ziren. Ohikoa izaten zen, gainera, norbere etxeko txikienak gurekin batera eta bestera ibiltzea. Ematen zuen urteak zirela elkar ezagutu genuela.

Bezperan udaletxeko horma erdi konponduta utzita, erabat altxatu beharra zegoen, eta goizean goiz, han bildu ziren ikasle batzuk. Lortu zuten horma bukatzea. Bien bitartean, beste ikasle multzo batek bigarren elkartasunezko lanari ekin zion: administrazio zentroan, hemendik eramandako 12 ordenagailu jarri. Goiz eta arratsalde jardun zuten, baina ezin izan zuten bukatu, hurrengo egunerako laga zuten.



“Arratsaldean,
aurreneko
elkartasunezko
lana egin behar
zuten ikasleek:
otsaileko euriteak
eraitsitako
udaletxeko horma
bat altxa.”

APIRILAK 10, ASTELEHENA: RABOUNI ETA GOBERNADOREA

Egunero bezala, egunsentiak esnatu gintuen. 08:00etarako udaletxean egon behar genuen, handik abituko ginelako Rabounira. Kanpamenduetako gune garrantzitsuena da. Han daude ospitalea, nazioarteko janaria jaso eta bideratzen duten lekua, eta Frente Polisarioaren Gerrako Museoa.

Ospitalea erakutsi ziguten lehendabizi, eta desertuaren erdian egoteko, nahikoa ondo antolatuta daude. Janariak jasotzeko lekuan adina kamioi ikustea ez da erraza izango. Denak nazioarteko laguntzaz beteak. Azkenik, Gerrako Museoa ikusi genuen. Tankeak, misilak... armak eta armak.

Bertan bazkaldu ondoren, Edcherara itzuli ginen, eta ordenagailuak jartzen aritu behar zutenek izan ezik, gainontzekoek atseden hartu genuen.

Iluntzean, Aaiun probintziako gobernadorea genuen zain, Omar Mansur. Agintariak ohikoak dituzten esker oneko hitzak esan eta gero, ikasleek euskal dantzak dantzatu, eta bertsoak bota zizkieten. Bere erantzuna luzexeagoa izan zen: Mendebaldeko Sahararen historiak eta egungo egoeraz luze eta zabal

mintzatu zitzaigun. Ikasleen galdera batzuei erantzun ondoren, bukatutzat eman zuen ekitaldia, eta lotara joan ginen.

APIRILAK 11, ASTEARTEA: DUNETAKO GAUA.

Alde egiteko bezpera zen, eta nekeak jota geunden denok. Nekeak berak eta guretzat ezezaguna zen klimak eraginda, gero eta gehiago ginen gaixotzen ari ginenak. Gurekin joan zen Ines Aseginolaza sendagileak makina bat lan egin behar izan zuen. Nekeak neke, eta gaixotasunak gaixotasun, baratze batzuk ikustera eraman gintuzten. Tomatea eta garia zegoen, eta lan pixka bat egin zuten ikasleek. Ondoa zegoen ur putzutik ura ateratzeko, Zestoatik joandako pare bat lagun ur bonba jartzen ari ziren, eta lanak bukatzeko ez zuten une egokiagorik aukeratu: mangeratik ura erruz ateratzen zen, eta nahi zuenak blai egiteko modua izan zuen.

Horrelaxe etorri zitzaigun bazkaltzeko tarteak. Jakin bagenekien gauean dunetara joan behar genuela, gaua han igarotzera, eta atseden hartu beharra zegoen.

English School
Harvest
Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 beheak
Tel. 943 862051
**DORNUTEGI**
SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278
**Maite**
ileapaindegia

Gauarekin batera abiatu ginen; nola ez, kamioietan. Ostiraleko duna berak ziren. Haima baten azpian afaldu genuen erretako antxumea. Gero, musika ere jarri ziguten, baina inork gutxiak zuen dantzarako gogo. Nekea gailentzen zitzaigun. Hala ere, lotara sartzeko, 05:00ak inguru izan ziren, eta handik pare bat ordura, eguzkiak esnarazi gintuen. Azkeneko eguna hasi zen.

APIRILAK 12, ASTEAZKENA: ESKOLAK ETA AGURRA.

Herrixkara heldu orduko, bertako eskola ikustera eraman gintuzten. Klaseak nola ematen dituzten erakutsi ziguten, azalpen praktikoa eta guzti. Handik, udaletxera joan ginen, Edcherako alkateak harrera egin behar zigulako. Ohiko ekitaldia izan zen, eta bukatu bezain pronto, oinez abitu ginen norbere etxera.

Bazkaldu ondoren, nahi zuenak Giltze herrixkara joateko aukera izan zuen. Merkatua dago bertan, eta opariak erosteko baliatzen genituen pare bat ordu.

Itzulera, afaria eta agurra besterik ez genituen zain. Une polita bezain gogorra izan zen agurrena. Astebetean familiakoak bagina bezala zaindu gintuztenak agurtzeko garaia zen. Gu etxera gentozen, baina desertuan gelditzen direnak beraiek dira. Hondarra, beroa, lehorra, etxetxoak. Erbestea. Egunen batean, Mendebaldeko Sahara aske izango den usteak ematen dien indarrarekin laga genituen han. Eta 30 urteko borrorak ematen dien duintasunarekin. Eta guztiontzako duten elkartasunarekin. Horrelakoa dira sahararrak, eta astebetean, sekulako ikasgaia hartuta ekin genion itzuliko bideari.

“Une polita bezain gogorra izan zen agurrena. Astebetean familiakoak bagina bezala zaindu gintuztenak agurtzekoa.”



OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

**FARMA ZUMAIA
PARAFARMACIA**

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesioentzako), Estresaren, Antzetabaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan, kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA

Duela hiru aste inguru Saharara joan ziren Zumaiaiko ikasle eta irakasleak. Hainbat erakundek eta elkartek emandako diru laguntzari esker joan ziren eta helburu

nagusia bertakoei laguntzea zen. Horretaz eta beste hainbat gauzez hitz egin dugu bertan egon diren hiru ikaslerekin, medikuarekin eta irakasle batzuekin.

ikasleak saharan

"Harrigarria da bizi duten egoera jasateko duten gaitasuna, eta halere beti dute barre txiki bat eskaintzeko"

MAITANE AGIRRE

Sahara joandako ikasleak oso ukituta etorri omen dira handik, bizitako esperientzien eraginez. Guk Iruñe Lazkanorekin, Ane Aizpuruarekin eta Andrea Manterolarekin hitz egin dugu, eta haxe kontatu digutena.

Zer moduzko esperientzia izan da saharara egindako bidaia?

IRUNE: Esperientzia oso gogorra izan da

ANE: Bizitzakua dudaik gabe, uste det beste edozein biaje ba_o askoz hobia dala dudaik gabe. Ez det uste bizitzan ahaztuko deunik. Bueno... ze esaten det ustet!!!! BADAKIT ez detela sekula ahaztuko, ezin da eta! Nik berriz ere han nahi det egon. Bueltatu eta buruan Sahara besterik ez, bertako jendia, elkartasuna... ezin dia beste inongoekin konparatu. Ezin da han sentitutakua ta bizitakua bi hitz sinpletan idatzi ta ulertarazi. Sahara hori baino askoz gehiago da. Dena izan da. Sahara, Sahara, Sahara, Sahara...

ANDREA: Oso esperientzia polita izan da, ahaztezina. Gauza ugari ikasteko aukera izan dugu eta benetan oso zortedunak izan garela uste dut. Jende zoragarria ezagutu dugu gainera!

Nolako egoera ikusi duzue?

IRUNE: Ba... txarra, haiek ez dute ezer, eta nahiz eta ezer ez eduki, duten apur hori, bestiei emateko prest daude. Beti daude laguntzeko prest. Beti daude irribarrez, batez ere,

"Ezin da han sentitutakua ta bizitakua bi hitz sinpletan idatzi ta ulertu arazi"



umiak eta beti jolasteko prest daude. Horregatik, futbolian, kartetan... jolaste ginen....

ANE: Tristea. Egoera jasangaitza, harrigarria, alar-mantea... da, baina batez ere tristea, giro tristea du Saharak, nahiz eta guri bertakua guztiz poztu izan. Ez dakit, uste det galdera bera ez dagoela galdetu beharrik ere. Badakigu ze errepresio jasaten ari diren ta nik uste horrelako zerbaiten aurrea edozein herrialdek izango dituela bi malko, ezta?

Ez dute merezi, eta aldatuko ote den galdetziak tristura ematen dit neri ere. SAHARA LIBRE!

ANDREA: Uste genuen bagenekiela nora gindoazen, baina orain badakit inork ez dakiela zer den hura, benetan hara joan eta ikusi arte. Egoera nahiko latza da: janari eta ur eskasia dago, tenperaturak jasangaitzak dira, sufrimendu handia dago familiak banandurik daudelako etab. Bidalitako laguntzekin bizi dira eta hori beraientzat gogorra da. Orain, gaine-

ra, laguntzak murrizten ari dira eta egoerak okerrera egin dezake. Baina hala ere duten guztia emateko prest daude; guk han ez genuen ezerren faltarik sumatu.

Egoera ikusita, zerk harritu zaituzte gehien?

IRUNE: Pertsona onak direla, dana eman digute eta beti laguntzeko prest daude.

ANE: Biztanleak. Dudarik gabe, biztanleak. Oso harrigarria da bizi duten egoera jasateko duten gaitasuna, eta halere beti dute parre txiki bat eskaintzeko. Haimara hurbiltzen ginen bakoitzean han zegoen familiko norbait bere barre txikiarekin, eta noski!!!, ahaztu gabe beraien tearekin... Ezin da sinistu hango biztanleen jarrera ona, atsegintasuna, elkarbanatzea, ez dute ezer eta halere dena ematen digute. Horrelakorik ez da I_OIZ ikusten gurean. Eta gazteak, gure horren berdin eta hain desberdin... Faltan sumatzen ditugu!!!!!!

ANDREA: Harrigarria da nola jasan dezaketen egoera horietan hainbeste denbora. Baina gehien inpresionatu nauena lehen esan bezala, beraien eskuzabaltasuna da, duten gutxi hori ere emateko prest baitaude.

Komunikabideek islatzen al dute benetan bertakoek bizi duten egoera?

IRUNE: Ez, han bizi behar da, egoera txarrean bizi dira, jende asko gaixo dago, ez dute sendagairik sendatzeko...

ANE: Interesaren arabera beti ere... hori pentsatzen det behintzat.

ANDREA: Ez da erraza hango egoera den bezalaxe islatzea. Gu sei egun egon gara eta uste det ez dela nahikoa guztiz ulertzeko hango egoera zein den; zer esan, orduan, telebista edo aldizkari baten bidez transmititzea zein zaila izan daitekeen. Ezin da ahaztu gainera batzutan zenbait datu ezkutatu ere egiten dituztela interes desberdinengatik eta horrela ezinezkoa dela benetako egoera islatzea.

Ez zarete, ordea, oporretara joan, lanera baizik. Zer egin duzue zehazki?

IRUNE: Uholdeak bota zuten udaletxeko horma bat konpondu genun: batzuk puskatutako horma garbitu zuten, bestiak zulua in ura bota eta masa egiteko; eta beste batzuk lurrezko adreiluen bila jun horma egiteko. Blokeak eta masa elkarri pasatzen horma berreraiki genun bertako igeltsero batzun laguntzaz.

"Ez zaigu ezertxo ere falta eta askotan gure zorteaz nola abusatzen dugun konturatzen zara."



Beste batzuk administrazio zentroan 12 ordenagailu jarri zituzten...

Ospitala ikustera ere joan ginen Rabounira, Tindufeko kanpamenduetako hiriburura. Zirugia, optika, pediatria, odontologia, fisioterapia eta larrialdiak dituzte bertan.

Kanpamendutako janaria bideratzen den biltegieta ere joan ginen. Kamioi asko daude janariz beteta kanpamendutara eramateko zain.



"Gu sei egun egon gara eta uste det ez dela nahikoa guztiz ulertzeko hango egoera zein den; zer esan, orduan, telebista edo aldizkari baten bidez transmititzea zein zaila izan daitekeen."



ere,baina gehienbat beraieganako gure elkartasuna adieraztera joan gara eta bide batez ikastera (egoeraren berri izan eta ohartzera)

Bertan egon eta etxera itzuli ondoren, zer sentitu duzue?

IRUNE: IZUGARRIZKO PENA! hona etorri eta han nengoe-la pentsatzen egon nintzen egun pare batzutan, zein ondo hartu ziguten denek, zuten guztia eman zigutela, ondoren hona etorri eta hemen dana dugula ikusita beraietaz gogoratzen ginen zein gaizki bizi diren ikusita. Estimazio ikaragarria hartu genien bertakoei... Izugarrizko esperientzia da... Hori bai! Berriz juteko aukera izanez gero joango nintzateke!

ANE: Ohetik altxatu ezina. Saharan ez nagoela ikustean, tristura handia. Guztia maletan sartu eta nirekin ekartzea besterik ez nuen nahi. Izugarrizko aldaketa da, lehen aipatu bezala.

ANDREA: Orduntxe ohartzen zara zein zortedunak garen. Ez zaigu ezertxo ere falta eta askotan gure zorteaz nola abusatzen dugun konturatzen zara. Uraren kasuan, adibidez, beraiek ur edangarri oso-oso gutxi dute eta guk berriz nahi beste. Itzuli garenetik gehiago zaintzen ditugu horrelako gauzak: dutxan denbora gutxiago igaro eta abar.

Gauzak ikusteko modua asko aldatzen da.

Gerrako museora ere joan ginen, bertako armak, gerrako agiriak eta abar jasotzen ditu...

Aaiun-eko gobernadoriai, batzuk aureskua eta bertso pare bat kantatu zizkioten eta berak Saharari buruzko hitzaldi bat eman zigun, bertako egoera zein den azalduz...

Baratza batzuk ikustera ere joan ginen, negutegiko belar txarrak kentzen aritu ginen, belarra mozten ere bai...

ANE: Beno, nahiz eta egindako lanak gertaturiko kalteen zati oso-oso txiki batean lagundu... Saiatu gara eta besteak beste udaletxearen pareta egin eta ordenagailu gela bat muntatu dugu. Oso gogorra da Saharako lana, eta gogorraga izango da bertan 30 urte daramatenentzat. Beroa izugarria da!

ANDREA: Egon garen herriko udaletxeko pareta eraiki dugu, uholdeen ondorioz eroria zegoelako. Eskolako materiala eraman dugu, baita sendagaiak,ordenagailuak,plaka solarrak eta abar ere. Ospitalea bisitatu dugu, baita eskola

ines aseginolaza zumaiko pediatra

"Guztia hara joan eta botikak agintzea baino zerbait garrantzitsuagoa da"

Herriko pediatra modura urte asko daramatza Ines Aseginolazak. Saharako bidaia esperientzia berezia izan den arren, han ere herrikoak zaintzen jardun du.

ITZIAR GARATE

Nola sartu zinen proiektuan? Hasieratik izan zenuen asmoaren berri?

Kontsultan jakin nuen. Goiz batean ama batek Saharari buruz zerbait komentatu zidan, baina ez nion kasu handirik egin. Egun berean, Samuel etorri zen eta berak ere zerbait esan zidan. Pentsatzen aritu eta Samueli deitu nion parte hartu ahal nezakeen galdezka. Ez dakit lekurik zegoen, niri behintzat egin zidaten.

Zein izan da zure lana han?

Hemendik joan ginenak zaindu ditut. Ahalik eta hobekien zaintzen saiatu naiz.

Hala ere, batzuk gaixo samar etorri dira...

Guztira berrogeita bost bat gaixotu ziren han. Badaude etorri eta gaixo jarri direnak ere. Lehen egunetatik jarri ziren gaixo eta hango nire etxera joan zitezela erabaki genuen. Beraz, kanpoko gutxi ikusi dut.

Zailtasunak izan dituzue?

Orokorrean, uste dut ongi moldatu garela. Gaixo egon direnek ez zuten hitz egiteko gogo handirik, baina kalean topatu ditudan ikasleak oso gustura egon direla uste dut. Hizkuntza izan da beharbada okerreana. Ez jakitean zaila da elkarrizketa sakanago bat izatea. Bertako mutiko bat izan genuen itzultzaile. Ez da erraza modu horretara informazio asko lortzea.

Jendeak nola hartu zuek hara joatea?

Ez dugu ahaztu behar euren bizimodu eta ohiturak dituztela. Beste leku batzuetan sinesmenek traba handiak jartzen dituzte



botikak edo laguntza hartzeko orduan. Gure kasuan, ez da hain zaila gertatzen, ohitura handiago dute, gugandik hurbilago daude.

Hemendik botikak eraman dituzue, orduan.

Banatzeko botikak erosi genituen, baita guretzat ere, sobratutakoak han uzteko asmoarekin. Zalantza handiak izan nituen aukeraketan, baina azkenean ongi atera zen.

Joango al zinateke berriz?

Oso ongi pasa dut. Itzultzeko prest nago. Gure artean ere oso ondo moldatu gara. Besteekin ez dut oraindik hitz egin, baina polita izan da, nire lana dela eta gauzak kanpotik ikusi ditudan arren.

Bueltatzekotan, egoera berean?

Gauzak beste modu batera pentsatuz egingo nuke. Uste dut nire lana oinarritzko laguntza ematea izango litzatekeela. Baina ez dakit zenbateraino den ona hemendik eraman dezakeguna. Arretaz jokatu behar da. Guztia hara joan eta botikak agintzea baino zerbait garrantzitsuagoa da. Euren ohiturak, bizimodua dituzte.

Alde handia nabaritu duzu, beraz.

Bi mundu ezberdin dira. Ez dakit egokia den gure oinarritzko laguntza hara eramatea. Esaterako, ama batek anemia zuela eta berun pilula batzuk eman nizekion. Egun batzuetara emakume batek esan zidan ama hori ospitalera joan zela, medikuari galdetzeraz, emandako pilula haiek onak ziren jakin nahi zuen. Egoera horietan pentsatzen duzu egiten duzuna hain onuragarria ote den.

irakasleak saharan

"Ez dute ezer, daukaten gutxi hori eman egiten dute eta alai bizi dira"

ITSASO IBARRA

Maria eta Jose eta Herri Eskolako arduradunekin hitz egin nahi izan dugu beste behin ere, eta jator-jator erantzun digute Samuel eta Ibon irakasleek.

Gaua zen Daralhi proiektuan parte hartu duen taldea Tindoufeko aireportu militarra iritsi zenean. Kamioietan sartu eta errepiderik gabeko bidean abiatu ziren Ahayunera. Iluntasunean milaka eta milaka izar izan zituzten lagun; denak aho zabalik zerura begira egin zuten Saharako lurretan lehen ibilaldia.

Goizeko bostetan udaletxean bildu ondoren, emakume batek eraman zituen bosteko taldetan zumaiaarak haimetara. Ibonek, antolatzailetariko batek dioenez, "han ez zuen balio 'nik ez dut nahi' esateak. Bizitzara egokitu behar zinen: tearen errittoa, hango janaria, hango kontakizunak...".

Daralhi proiektuaren helburu nagusia sahararrekin elkarbizitzea zen eta hori ondo baino hobeto bete dutela diote antolatzaileek: "Ikasle, irakasle eta kazetarien arteko elkarbizitza ona izan da, baita bertakoeekin ere. Oraindik familiek deitu egiten diete ikasleei. Gainera, gauza asko ikasi dituzte eta ikasle batzuk ukituta etorri dira".

Saharan izan diren astebetean, errefuxiatu izatea zer den ikasi dute, baita bizi duten egoera gogorren zoriontasunez nola bizi daitekeen ere: "Ez dute ezer eta duten gutxi hori eman egiten digute eta, gainera, alai bizi dira. Baldintza gogor horietan antolatzeko eta aurrera begiratzeko gai dira, itxarope-



"Oraindik familiek deitu egiten diete ikasleei. Gainera, gauza asko ikasi dituzte eta ikasle batzuk ukituta etorri dira"

na galdu gabe". Samuelek gaineratu duenez, "pazientzi errepasoa ere eman digute: hemen beti erlojuaren kontrolpean bizi gara eta han ez du funtzionatzen, ez dute presarik ezertarako".

Bi urtean lanean aritu ondoren, hainbat proiektu garatzeko asmotan abiatu ziren zumaiaarak Saharara eta proiektuok gauzatzea lortu dute: informatika gela aurrera atera dute, uholdeak suntsitutako udaletxearen pareta altza dute -40 graduko tenperaturan egun osoz lanean jardunez-, Baleikek emandako diruarekin erositako botikak Ospitale Nazionalean entregatu dituzte, eskolako materiala utzi dute, eguzki plakak...



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA



Zazpi egun igaro dituzte saharar lurretan eta orain han bizitako esperientzia zabaldu nahi dute. Antolatzaileek diotenez, "Enbaxadore bihurtu ditugu 80 ikasle hauek eta orain ahoz aho zabaltzen ari dira bertako egoera, eta horixe da Sahararrei interesatzen zaiena; izan ere, gai gara laguntza bidaltzeko, baina ez gara ohartzen zergatik dauden han". "Daralhi 06"-k nolabaiteko jarraipena izateko esperantza badute antolatzaileek: "Saharak badu zerbait, barnean zerbait geratzen zaizu eta berriz joaten saiatzen zara. Ikasleen aldetik ea zerbait irtetzen den. Hazia bota dugu eta ikusiko dugu fruituak ematen dituen ala ez".

Amaitzeko eskerrak eman nahi izan dizkiete proiektu hau aurrera eramateko laguntza eskaini duten guztiei: oro har, Zumaiako herri osoari, bai erakundeei, baita banakakoei ere.

"Baleike-k emandako diruarekin erositako botikak Ospitale Nazionalean entregatu dituzte"



OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Indurigrunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
ainakularitza teknikoak,
Balorazioak

TXINGURRI
Koof. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA

Mota guztietako
altzariak eta
arotegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



GALDERA:

Oraingoan argazkiko etxetik abiatuko gara. Etxe honek itsas izena dauka, eta tamainaz txikia izanagatik, balio handikoa da, batez ere barrualdean dauzkan eskulturengatik. Etxearen aurrealdean, ibaiertzean, pasealeku bat dago, etxe honen jabe izandakoaren izena daukana gaur egun, baina lehen beste izen batzuk ere izan zituen: Avenida del Conde de Valle Llano, Avenida de Alfonso XIII, Avenida de la República, Avenida de Navarra... Ibaiertzetik ibaian gora 500 m inguru eginda, uretara jaisten den porlanezko aldapa batera iritsiko gara. 1916 inguruan egin zuten aldapa hori, portuko lanak errazteko. 1931n garabi edo grua bat ere jarri zuten, 2000an uretara erori zena, itsasontzietan motorrak sartzeko. Garai batean, igerilekurik ez zegoenean, gutariko askok eta askok hortxe ikasi genuen igerian. Baina aldapa hori egin aurretik, baita Paolbidea egin aurretik ere, uharte txiki bat zegoen hor inguruan, eta uharte horren izena hartu da inguruko gauza batzuk izendatzeko (arranpla, garabia...).

Nola izena zuen uharte horrek?

Arrasto txiki bat: gaur egun, ontzi txiki edo motorzaleen elkarteak ere izen horixe dauka.

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) ekainaren 5a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.

**Aurreko zenbakiko erantzuna:
San Juan iturria**

Sariduna: Ruth Arano

**Parte hartu eta
zorte on!!**



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.

Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue !!

Idatzi elkarteak@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKEn buzoian.

Oraingoan, sari hau zozketatuko dugu.

Maiatzaren 19an, TXALOren Erreleboa antzezlanaz gozatzeko aukera izango duzue. Guk antzerki hori ikusteko bost lagunentzako bina sarrera ditugu.

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren aurretik.

Zor te on!!

Udaleko Kultur Batzordeak emandako txartelak.

Lan honek saria jaso zuen 2005eko Azpeitiko Euskal Antzerkiaren XXIII. Topaketetan.

Algezirasen egingo dute topo bi euskaldunek soldadutzan; bata amaitzekotan eta bestea hasi berritan. Gau batean elkarrekin esperientziak eta bizipenak konpartituko dituzte.

Soldadutzaren absurdua islatzen duen antzezlan.

Esperientzia, inozentzia, adiskidetasuna, borroka edo leialtasunaren istorio komikoa da. Laburbilduz, bi euskaldun etxetik kanpo.



- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

nuria lopez de gereñu garraio eta herri lan sailburua

“En granaje asko dituen makinaria da Jaurlaritza”

Eibarren jaio eta Zumaian bizi da Nuria Lopez de Gereñu, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburua. Telekomunikazioetan ingeniaria da eta, Jaurlaritzan aritu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko landa diputatua izan da. Politika beti izan du gogoko; besteak beste, legebiltzarkide nahiz Gipuzkoa Buru Batzarreko kide ere izan da.

ITSASO IBARRA

Aurrera eta atzera ibili ohi da egunero, eta Baleike-rekin goizean goiz egin du zita, lanera abiatu aurretik.

Eibartik Zumaia dator Euskotren, zeuk ere bide bera egin duzu...

Nire amak txiki-txikitatik pasa izan ditu udak Zumaian eta geuk ere bai. Beti izan dut lagun taldea Zumaian. Senarrak eta biok non bizi erabakitzeke garaian Zumaia aukeratu genuen. Duela ia hamar urte bizi naiz hemen, baina herriarekin lotura beti izan dut.

Orain berriz, Zumaiaitik Gasteizera egunero...

Bidean irakurtzen joaten naiz eta denbora aprobetxatzen dut. Gauean luze egiten da, bulegotik 18:30ean-edo irten eta etxera heltzeko 20:00ak dira, eta hori luzea egiten zaizu. Nahiz eta bulegotik goiz atera etxera berandu heltzen zara. Lehen, Foru Aldundian nengoenean, hoge minutuan etxean nengoen eta oraindik erreferentzia hori ez dut ahaztu, oraindik ez nahiz ohitu.

Nola heldu zara Garraio eta Herri Lan sailburu izatera?

Lehendakariak egun batean deitu ninduen eta bere taldeko kide izateko aukera eman zidan, eta, noski, halako aukera baten aurrean baiezkoa esan nuen, ohore handia delako bertan lan egiteko aukera izatea. Ibilbide batek eramaten zaitu bertara, halako batean ez zara heltzen sailburu izatera, atzetik badago jarduera bat; legebiltzarkide izatea, diputatu izatea...



Ingeniaritza ikasten ari zinela inoiz pentsatu zenuen politikan amaituko zenuenik?

Politika beti izan dut gustuko. Konturatu izan naiz nire ingurukoak ez direla harritu neu politikan ikusteaz, nire politikarako dedikazio honekin, politikarako grina neukala ikusten zutelako. Ingeniaritza ikasterakoan uste nuen horretan egingo nuela lan. Baina Bartzelonan karrera ikasten nengoela ere oso gertutik bizi izan dut hemen gertatzen zena eta hemen-go politika. Beti jarraitu izan dut politika.

Bada loturarik ingeniaritza eta daukazun karguaren artean?

Edozein kargutan garrantzitsua da ezagutza tekniko bat izatea. Erabakiak hartzerakoan lan talde bat daukazu atzean, baina beharbada zenbait sailen buru izateko ezagutza tekniko bat izatea garrantzitsua da eta erabakiak hartzerakoan lagungarria.

Zein onura eta kalte ditu sailburu izateak?

Nik kalte bakarra ikusten diot: familiariekin egoteko kentzen didan denbora, ume txikiak ditut eta. Onuren artean, berriz, niretzat lehendakariaren eta bere taldeko kide izatea ohore handia da. Guk argi daukagu esku artean ditugun proiektuek izugarritzko garrantzia daukatela gure herriaren etorkizunerako eta, beraz, gure herriaren eraikuntza hori departamentutik egitea uste dut talde guztiarentzat oso gauza interesgarria dela. Horregatik gaude hain ilusionatuta eta benetan hain buru-belarri proiektu honetan sartuta.

Ofizioak uzten al dizu afizioetarako astirik?

Emakume izateak berarekin dakar lehentasunen zerrendan norbera azkena egotea eta horregatik ere ez dut izaten nire

zaletasunetarako denbora askorik. Umeak hazten doazen heinean, pentsatzen dut nire zerrenda horretan afizioak gora egitea eta aukera gehiago izatea.

Nolakoa da zure laneguna?

Luzea, egin behar ditudan gauzen arabera. Egun batzutan agerraldi publikoak dituzu eta tartekatzen da hori bilerekin, irakurtzeko denborarekin... Batzuetan publikoki gehiago azaltzen naiz eta bestetan bilerak edo barneko lanak izaten ditut egiteko.



“Emakume izateak berarekin dakar lehentasunen zerrendan norbera azkena egotea”

Eta Jaurларitza?

Administrazio handia da, sail gehiago daude eta ahaltsuagoak. Jende gehiago dago lanean. Makinaria handia da. Departamentuen artean bakoitzak daukagun mailan komunikazio ona dago eta horrek ere erraztu egiten du proiektuak aurrera eramateko garaian. Barrutik jende asko dago lanean, departamentu ugari dago. Maila bakoitzean harremanak daude, sailburuen artean, sailburuordeen artean, eta teknikarien artean. Makinaria bat da, engranaje askorekin eta departamentuen artean konexio asko dituen.

Zu agertzen zara komunikabideen aurrean, baina lanean ez duzu bakarrik jardungo, ez? Nolako lantaldea duzu atzean?

Funtzionarioak, teknikari asko, sailburuordea, prentsa arduraduna, kabineteko burua... Departamentuan bost zuzendaritza daukagu. Lantalde ona izatea garrantzitsua da; taldean lan egin behar da eta norberak bakarrik jai dauka. Ekipo berria da eta gaztea. Erronka handiak daukagu eta buru-belarri gabilta proiektu horiek bultzatzen.

ekin
Zabaleria, s.l.
Defensora Kidea 10 bidea, 28761 Getaia Tel. 943 14 2017 ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

 **DIGITAL +**

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Gipuzkoako Foru Aldunditik Jaurlaritzara badago alderik? Aldundian nengoenan lan esparrua Gipuzkoa zen; orain, berriz, Erkidego guztia da eta hortik aurrera egin daitezkeen bidaia... Esparrua zabala da, eta aurrera eta atzera ibiltzeko beharra sortzen du. Saila ere ezberdina da eta horrek problematika eta gauza denak aldatzen ditu. Dimentsio aldetik Aldundia eta Jaurlaritza ezberdinak dira. Beste ikuspegi bat izaten da Jaurlaritzatik, Erkidegoko ikuspegi zabalagoa. Diputazioan nuen karguak aberastasun handia eman dit, ikuspegi zabal bat izateko eta erabakiak hartzeko garaian arlo asko kontuan hartzeko.

Aurrera eta atzera ibiltzen zarela diozu; erabiltzen al duzu garraio publikoa?

Egun batean posible dut Erkidego-ko hiru hiriburuetan egotea eta erantzukizunek Jaurlaritzaren automobila erabiltzea eskatzen didate. Baina nik neure bizitza pertsonalean erabiltzen dut. Askok ikusiko naute trena hartzen Donostiara joateko, batez ere umeekin noanean edo erosketak egitera... Lehen asko erabiltzen nuen, Donostian lanean nengoenan tre-

nez joaten nintzen egunero. Asko gustatzen zait trena, autobusa baino gehiago.

Landa eta ingurugiro diputatu zinen Aldundian; orain, Garraio eta Herri Lan sailburua; ez al dira kargu kontrajarririk?

Guk azpiegiturak lantzen ditugunean lurra babesten jarraitzen dugu. Esaterako, Abiadura Handiko Trenarekin gure helburua da hori garatzean ingurumenarekiko eragina txikitzea eta landa lurraren inguruan izan dezakeen eragina murriztea. Horregatik diot lehen izandako erantzukizunak ere eman didala ikuspegi osoa ikusteko aukera. Esango nuke kargu bietan garapenaren alde lan egiten jardun dudala eta orain ere, esparru ezberdinetatik, baina betiere garapen hori bultzatzearen ikuspegitik.



“Azpiegiturak lantzen ditugunean lurra babesten jarraitzen dugu”

Abiadura Handiko Trena ez da hemendik igaroko, baina zein eragin izan ditzake Zumaian? Tren sare berria herritar guztien azpiegitura bat izango da. Herritar



Albaitaria
Maki Gomendio

Basodi 7 behe - 20750 Zumaia - Tel.: 943 143 310

Email: veterinariabasodclinicivet.com

Web orria: www.basodclinicivet.com

Sabes: 11-12 / Arratsalde: 16-19:30 / Astelehen gozakeria larunbatetik itzuli

Larunbatetik 085 735 757 Etxe okupazioa ezartzen

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



Mota
guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amara plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 191

guztiek hainbat urtetan eskatu duten azpiegitura bat, behar-beharrezkoa herri honentzat eta zumaierrei, euskal herritar diren heinean, tren sare berri honek mesede egingo die, euskaldunak direlako eta euskaldun guztien azpiegitura delako.

Tren honen helburua, gaur egun, garraioaren inguruan dagoen egoera bati irtenbidea aurkitzeko aurrerapauso bat ematea da. Euskal Herri osoak nabarituko ditu onurak, azpiegiturak garatzerakoan lortu nahi dugun egoera komunikazioa hobetzea baita: barrura eta kanpora begira.

Nolakoa da Zumaiaiko garraio publikoa?

Kanpora begira, zumaierrek bizitza gehiago egiten dute Donostia aldera eta Donostiarekin, bai trenez eta bai autobusez oso konbinazio ona daukala uste dut. Alde horretatik, hobetu daiteke, eta trenaren lotura hori hobetzeko lanean ari gara: orain ordu erdian behin dagoen maiztasuna hobetzearen alde eta herri batetik bestera dagoen denbora ere murriztu nahi dugu.

Bilbora joateko, berriz, bada-go zer hobetu. Zumaia herrietan geratzen den trenaren sistema horren barruan sartzen da, eta, ondorioz, bidaia luzea egiten da.

Horregatik herri guztietan geratuko ez diren azpiegiturak behar dira beste era bateko lotura eskainiko dutenak. Zumaia Donostiaren bidez lotura zuzena eduki dezake, tren bide sare berriarekin, eta, beraz, hor egongo da bi ordu baino gutxiagoko lotura Bilborekin.

Behar al dugu garraiorik herri barruan mugitzeko?

Ez da herri zabala, Zumaia hazten ari da, baina distantziak ez dira handiak. Barrura begira, Zumaian garraio sistema egokiena bizikleta da. Horretan asko laguntzen du dituen ezaugarriak: badaude aldapa batzuk, baina, oro har, nahiko zabala da eta herriak daukan dimentsioak ez

**"Zumaian
garraio
sistema
egokiena
bizikleta da"**



Santelmo beroak

Santelmoetako bigarren igandean, AHTren Aurkako Asanbladak kontzentrazio deialdia egin zuen Kantauri plazan, baina Barne Sailak debekatu egin zuen. Hasierako asmoa ezin burutu, baina azkenean manifestazioa egin zuen AHTren Aurkako asanbladak. Ezin izan zuen bukatu, ordea, Ertzaintzak eragotzi egin zuelako. Zein iritzi duzu horri buruz?

Trenari buruz edo beste edozein azpiegitura edo egitasmo publikoari buruz iritzi desberdinak izatea legitimoa da. Baita iritzi horien alde adierazpen askatasuna erabiltzea ere.

Baina tipo honetako protestak arduradunen etxebizitza partikularren aurrean burutu nahi izatea onartezina da gizarte demokratikoetan eta garbi erakusten du holako ekintzak bul-tzatzen dituztenen etika falta eta jarrera koertzitibo eta antide-mokratikoa. Hala ere gure gizartean oso joera minoritario eta marjinalak dira. Ez naute kezkatzen eta nik nire erantzukizuna betetzeko lan egingo dut gogotik orain arte bezala.

Errepideetan bizi den egoera erabat aldatuko omen du AHTk eta onera egiteko giltzarri dela adierazi zuen orain gutxi sailburuordeak (zure sailekoak). Zuk ere hala uste al duzu?

Trenbide-sare berri hau jarrita, denbora asko aurreztuko dugu guztiok: treneko bidaiariak, jakina, baina baita errepideko bidaiariak ere, errepideetan ibilgailu gutxiago ibiliko baita joan-etorrietan.

Bidaiariak trena erabiltzen duten neurrian, errepideetako segurtasuna hobetu egiten da, eta istripu-kopurua gutxitu. Tren-bidearen aldeko apustu egitea, garraibide seguruaren alde egi-tea da.

Kapaia
Antena

Enbeto Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SMAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

du arazorik jartzen halako garraio sistema bat erabiltzeko. Gainera, herrian lanean ari dira bizikletaren erabilera bultzatzeko.

Izango dugu garraio publikoaren beharrik Zumaian barrena mugitzeko?

Momentuz ez dago behar handirik. Badago itsasontzi bat hondartzara joateko, baina horrek hondartzara joateko eman behar den buelta guztia kentzen du. Egia da Zumaia hazten ari dela eta, behar bada, joango da behar hori sortzen. Anbulatorio berria egitera doazen moduan, agian garraio publiko bat ere behar izango da etorkizunean, baina nik orain ez dut beharrezkoa ikusten.

Urolako Trena berreskuratzeko asmoa omen dago...

Bai, Urolako Trena merkantzia garraiatzeko berreskuratzeko asmoa dago. Proiektua garatzen ari gara orain dagoen trenbidea errehabilitatzeko. Egia da lehengo trenbide sarearen gainean ekipamendu batzuk garatu direla eta, beraz, ez dela posible izango lehengo sare osoa errehabilitzea. Baina, behintzat, merkantziari irtenbide bat emateko proiektuan lanean ari gara.

Trena badago, baina autoa erabiltzen dute gehienek eta horrek aparkatzeko arazoak sortzen ditu. Nola konpon daiteke hori?

Garraio publikoaren erabilera areagotzea nahi dugu, neurri horretan lortu nahi dugun helburua da norberaren autoaren erabilera gutxitzea, eta behar hori ez egotea. Ez daitezen egon familia bakoitzean bi auto edo gehiago. Azken urte hauetan asko lotu da garraioa errepide eta norberaren auto-

mobilaren erabilerarekin eta horri guztiari erantzuteko garraio publikoa bultzatu behar da. Trena ezinbestekoa da, eta horrek uste dut herri guztietan automobilak aparkatzeko dagoen arazoa normaldu dezakeela.

Zertan da saihebidia?

Hori Diputazioaren proiektua da, baina nik dakidanez, aurtun hastekoak dira edo behintzat aurrekontuetan hala dago aurreikusita. Oso garrantzitsua da Zumaia-erantzat, azken finean errepide nazionala herri erditik igarotzen da, trafiko handia dago eta udaran sortzen diren ilarak zer esanik ez. Saihebidia interesgarria da, Zumaia bi zatitan banatuta egon beharrean elkartzeko eta trafikoa erditik kentzeko.

Ba al dago beste proiekturik gure herrirako?

Kostalde guztiaren inguruko babes figura bat bultzatzeko asmoa dago. Aldundian nengoela harremanetan egon ginen Deba eta Zumaia-alkateekin. Azpiegiturei begira, portuak badauka oraindik garatzeko beharra: pantalan gehiago jarri beharra dago. Orain Zumaia-kirol portua enpresa batek gestionatzen du eta badago proiektu bat EKPk portuak orokorrean gestionatzeko; azken finean, enpresa bakar baten bidez Erkidegoko kirol portu guztiak kudeatzeko.

Eguraldiaren berri ere zuen sailetik jasotzen dugu.

Ez da lotzen departamentuarekin, baina meteorologia eta klimatologia gure ardura dira, eta Euskalmet agentzia departamentuarena da. Oso baloratua dagoen zerbait da. Radar berria orain dela gutxi inauguratu zen, eta horrekin gure hurrengo erronka da lortzen den informazio guztia ondo zuzentzea sektoreko esparru bakoitzak behar dituen beharretara; ezberdina baita aisialdirako edo jarduera ekonomiko zehatz baterako behar den iragarpena. Norberak behar duen informazioa eskaini ahal izateko egokitu nahi dugu.



SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reliki ikastaroak



Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Berenjena beteak Urraren modura...

O SAGAIK:

2 berenjena
irin pixka bat
2 tipula
4 arrautza
150 gr haragi pikatu (txahalarena)
tomate saltsa
olioa, gatza eta piperra

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Nola prestatu:

Berenjenak erditik ebakiko ditugu (luzetara) eta labean egingo ditugu 20 minututan, 180 °-tara. Hozten utzi, eta mamia kenduko diegu berenjenei, kontu handiz. Berenjenaren mami hori gorde gerorako.

Tipulak hartu eta txiki-txiki egin, eta frijitu gorritu arte. Orduan, gehitu lehen gordetako berenjena mamia, baita haragi pikatua ere. Ondo nahastu dena, eta nahaste horri tomate frijitua gehitu. Ateratzen den nahastearekin, berenjena zatiak beteko ditugu. Ondoren irinetatik eta arrautzetatik pasa eta frijitu berenjena beteak.

Eta, on egin!

Oharra: berenjena beteak tomate frijituarekin edo tomate saltsarekin atera daitezke mahaira.

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

aíta mariko neskak

"Neskak arraunean hastera animatu nahi ditugu, m e r e z i du-eta kirola eta hemengo giroa ezagutzea"

IZASKUN URBIETA

Batel txapelketa amaiturik eta trainerillena hasirik, Euskadiko Batel Txapelketa irabazi duen boskotearekin hitz egin dugu. Bost neska dira, denak leku desberdinetatik etorriak, baina guztien artean talde sendo eta polita osatzeko gai izan dira.

Ainhoa Iriondo debarra, Olatz Agirregabiria eta Izaro Etxaniz itziartarrak, Ana Reyes Zumaian bizi den sevilarra eta Aintzane Urbieta zumaiarra. Nolatan hasi zineten arraunean?

Gu (Ainhoa, Olatz eta Izaro) kirolen bat egiteko gogoz geunden, eta piraguistak entrenatzen ikusita, brometan piraguan hasiko ginela esan genuen. Baina dena brometan izan zen. Azkenean, arrauna polita zela iruditu zitzaigun eta probatzeko arraunean hasi ginen.

AINTZANE: ni, berriz, familiak bulztatuta hasi nintzen. Gelakide batzuk etorri ginen arrauneko loka-

lera; hasieran gu bost ginen, baina azkenean ni bakarrik geratu nintzen.

"Uste genuen lehenak izatea oso zaila izango zela, batez ere gure aurreneko urtea izanda, eta beste talde askorena, berriz, laugarrena"

ANA: Aintzaneren gelakidea naizenez, beraiek animatuta hasi nintzen geroxeago. Azkenean gure gelatik Aintzane eta ni geratu ginen. Baina eskerrak Ainhoa, Olatz eta Izaro ere bazeuden; bestela, ezin izango genuen batela atera.

Denboraldi hasieran pentsatzen aizenuten hain ondo ibiliko zinatela?

Ez, ezta pentsatu ere. Entrenatzaileek esaten ziguten bigarren edo hirugarren postua lortzeko moduan ikusten gintuztela. Uste genuen lehenak izatea oso zaila izango zela, batez ere gure aurreneko urtea izanda, eta beste talde askorena, berriz, laugarrena.

Hasiera-hasieratik ibili zintaten lehian Koxtaperekin. Irabazitako bi estropadekin momentu batean ligan aurrenak ere jarri zintaten. Azkenean, bigarren postuarekin konformatu behar, bai Gipuzkoako Ligan, bai Txapelketan. Zer gertatu zitzaizuen?

Entrenamendu falta izan genuen. Denok elkartzen ginen egun bakarra ostirala zen. Beste egunetan ahal zuena joaten zen entrenatzera. Gela ezberdinetan gaudenez, batek azterketa egun batean izaten zuen, besteak beste batean...

Gainera, Olatzek ere besoa kargatuta ibili zuen denboralditxo batez



garraioak
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557
Izaskun, 3-2A (Zarautza) • Aitzpiloa, 16-E (Mendiara)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



TALAI
INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1



eta horrek ere gure maila jaitsarazi zuen.

Gure ustez, oso garrantzitsua da denok batera entrenatzea, eta hori egin genuen, adibidez, Euskadiko Txapelketa jokatu baino lehen.

Baina azkenean saria izan zenuten, Euskadiko Txapeldun, alajaina! Nola gogoratzen duzue estropada? Gogo handiarekin joan ginen, ez genuen espero irabaztea, eta, hortaz, lasai abiatu ginen Donibane Lohizunerantz. Gure asmoa ondo arraun egitea zen. Beste estropada

guztietan ez genuen arraunean ondo egin eta hemen ongi egiteko asmoz joan ginen.

Bertara iritsi ginenean esan ziguten 3 kategoria osatu zituztela: haur, kadete eta haur-kadete kategoria. Guk azken horretan hartu genuen parte. Gainera Koxtapek baja garrantzitsu bat zuela esan ziguten eta orduan estropada gurea izan behar zuela pentsatu genuen.

Urduri atera ginen eta irteera eskasa egin genuen. Ziabogara bigarren iritsi ginen, baina lehenak atera ginen. Sanpedrotarrak gertu izan

genituen bueltako luzean, baina erritmoari ongi eutsi eta ondo arraun eginez garaipena lortu genuen.

Zer sentitu zenuten irabazitakoan? Izugarrizko emozioa. Bukatu eta irabazi genuela konturatu ginenean oso pozik jarri ginen, negar malkoak ere atera zitzaizkigun. Momentu batean bigarren egin genuela ere pasa zitzaion burutik Aintzaneri, Sanpedrotarrak ere ospatzen ari baitziren baina hori momentuko emozioagatik izango zen. Gainera,

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Zumaiako beste arraunlariak han zeuden guri animatzen eta zorionak ematen.

Eta ondorengo ongi-etorrian?

Lotsa eta emozioa, bietatik pixka bat. Zumaiara iritsi ginenean Basustara joan ginen bazkaltzera eta bertan zeundenek txalo zaparradez hartu gintuzten. Momentu horretan lotsa pasa genuen. Ondoren kalean banderarekin ibili ginenean ere bai. Gauean, balkoira atera ginenean ere sentimendu guztiak izan genituen: poza, emozioa eta lotsa punttu bat ere bai. Hainbeste pertsonaren aurrean normala da. Baina oso gustura egon ginen.

Zer da arraunetik gehien eta gutxien gustatzen zaizuen?

Gutxien gustatzen zaiguna korrika egitea da. Horretarako nahiko alper-
rrak gara, baina badakigu hori ere

egin beharreko gauza dela, oso inportantea delako erresistentzia ona izatea.

Bestalde, gehien gustatzen zaiguna estropadak jokatzeta da, eta, batez ere, autobusean eta lokalean izaten dugun giro ona.

Neska gutxi daude arraunaren munduan. Zer esango zenieke zuek bezalako neska gazteei?

Etortzeko, animatzeko hona etortzera. Kirol nahiko gogorra dela, baina, egia esan, gehiago gozatu dugula sufritu baino, eta merezi duela kirola eta hemengo giroa ezagutzeta.

Hurrengo urtean zer?

Izaro eta Ainhua jubeniletara igoko dira. Jubenilek denboraldi gogorra-
goa izango dute, 2.000 metro egin beharko dituztelako arraunean (aur-
ten 1.000 metro egiten zituzten). Biek jendea behar dute batela osa-

tzeko, baina aurreko urteko neskak berriz arraunean hasiko diren espe-
rantza dute.

Anak, Olatzek eta Aintzanek ere gutxienez bi neskaren beharra dute batela osatzeko. Hirurek maila berean jarraituko dute, haur-kadete mailan.

Beraz, nesken beharra dagoela aldarrikatzen dute. Nahi duenari animatzeko esaten die, ondo pasako dutela eta arraunean.

Ea beste neska batzuk animatzen diren; izan ere, pena izango litzateke orain dabiltzanak arrauna uztea ezin dutelako batela osatu. Mutilen kadete mailan ere gauza bera gertatzen da. Orain arte dauden asko jubeniletara pasako dira eta bi bakarrrik geratuko dira kadeteetan. Ea mutilak ere animatzen diren.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiete entrenatzaileei eta lagundu dieten guztiei.

Partidu era bakigarria

MAITANE AGIRRE

Azkenean bai. Azkenean lortu zuten Pulpo K.E. taldeko neska seniorrek Euskadi A mailara igotzea. Bi astez jarraian igoera esku artean eduki zuten, baina Logroño eta Muskizen garaipenik lortu ez zuten, ezin izan zuten igoeraz gozatu. Horregatik, azken partidua irabaztea ezinbestekoa zitzaien eta, horrela, igoera lortu zuten Portugaleteko Jarrilleras taldeari 23-18 irabazi ondoren.

Zumaiarrak bigarren geratu dira sailkapen nagusian; izan ere, Bizkaiko Muskiz taldearekin berdinduta geratu diren arren, bizkaitarrek gol gehiago sartu dituztenez denboraldian, haiek dira irabazleak.

Denboraldian zehar gora-behera ugari eduki dituzten arren, azken unera arte sufritzen egon ondoren, azken partidua erabakigarria irabaztea lortu zuten eta, beraz, hurrengo denboraldian goragoko mailan ikusiko ditugu. Orain arte bezala Gipuzkoa eta Bizkaiko taldeak arituko dira, baina maila handiagoa izango denez, mantentzea izango da beraien helburu eta erronka bakarra. Horregatik, urte honetan egin duten bezala, denbo-



raldi berrian ere gogor borrokatuko direla adierazi dute.

Hemendik, beraz, zorte ona opa diegu, eta, nola ez, ZORIONAK!!

ZINE FORUM

Maiatzak 18, osteguna, gaueko 10:15ean

Las llaves de casa

Zuzendaria: Gianni Amelio **Aktoreak:** Kim Rossi Stuart, Andrea Rossi, Charlotte Rampling



Erditze traumati-
ko baten ondo-
rioz, Paolo buruz
eta gorputzez
elbarria da, eta
Berlingo ospitale
berezi batera
joan beharra

dauka, errehabilitatzen jarraitzeko. Gianni aitak lagundu egingo dio Berlina, behin batean abandonatu zuen semea ezagutzeko aukera izango duelakoan. Gianni gizon gaztea eta zalantzatia da, eta semearen egoera barkamenik izango ez duen kondenatzat hartzen du, bere bizitzako zulo beltza balitz bezala. Paoloren ama hil egin zen semea erditzean eta Giannik ihes egin zuen "arazo batzuekin" jaiotako semeari aurre egin behar izan zionean. Hamabost urteren ondoren Paolarekin elkartu da, Berlingo ospitalera laguntzeko eskatu diotelako, eta beldurrak airean dago Gianni; iruditzen zaio egoerak gainditu egingo duela; uste du ez duela behar bezala erantzungo.

Pelikulak kontatzen du nola ezagutzen duten elkar, baita amodioa, erresumina eta itxaropen hauskorrek ere. Osagai horiekin, edozein zuzendarik bazkalostera-ko film negar eragile bat egingo zuen; Ameliok ez, ordea: bitxi bikain hau egin zuen, sentiberatasunez (eta ez milikeriaz) betea, eta film honek baieztatzen du calabriarra Italiako zuzendari interesgarrienetako bat dela..

Ekainak 1, osteguna, gaueko 10:15ean

Vete y vive

Zuzendaria: Radu Mihaileanu **Aktoreak:** Yaël Abecassis, Roschdy Zem, Moshe Agazai



1984. urtean koka-
tzen da erreality-
tean oinarrituriko
istorio gordin
hau. Afrika izuga-
rrizko gosetea pai-
ratzen ari da eta
hainbat herrialde-

tako milaka errefuxiatu iristen dira Sudango kanpale-
kuetara. Egoera honetan, Estatu Batuak eta Israelek
"Operación Moisés" izeneko plana jarri dute martxan
etiopiar juduak (falasha edo lurrik gabeak) Israelera
eramateko.

Bizi duten egoera penagarria ikusita, ama kristau
batek umezurtz judua dela esateko eskatzen dio
bederatzi urteko semeari, horrela gainean daukaten
etorkizun beltzetik ihes egiteko aukera izan dezan.
Mutikoa Tel Aviv-era iritsiko da, familia batek hartu-
ko du semetzat eta ordura arte ezagutu ez duen bizi-
tza eskainiko diote: ura nahi adina, janaria, ikasteko
aukera... Isilpean ezkutatutik duen sekretuarekin
haziko da, eta heldutasunerako bidean mendebalde-
ko kultura eta judaismoa ezagutuko ditu. Horrekin
batera, ordea, inguruan dituen arrazakeriaz beteriko
jarrerez ohartzen joango da eta bere herrialdean
amaiezina dirudien gatazka odoltsuaren neurriaz
jabetuko da.

Momentu hunkigarriez eta gizatasunez gainezka egi-
ten duen pelikula.

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

DEIALDIAK

- HERRI URRATS (maiatzak 14): Maiatzaren 12an amaitzen da autobuserako izena emateko epea. Txartelak salgai: Inpernupen eta Metron (10 euro / 5 euro). Irteera, 8etan Pulpotik; itzulera, 7etan.
- NATUR ASTEBURUA: Maiatzaren 19tik 21era. Zumaiaiko Natur Taldeak antolatuta.
- IRTEERA MUSIKALA: Maiatzaren 20an, Kursaalera AIDA ikustera. Sarrerak salgai maiatzaren 3tik aurrera.
- ZUMAIKAKO ARGAZKI LEHIAKETA: txuri-beltzean. Gaia: "Ura". Lanak aurkezteko epea, ekainaren 22an. Informazioa kultur etxean (943-861056)

IRTEERAK

Bisita naturalista: maiatzak 21
Geologikoa: maiatzak 13
Kulturala: maiatzak 13 eta 27
Trekking: maiatzak 14
Itsaslabarrak eta ibaia:

maiatzak 27

Informazioa: Turismo
bulegoan (943-143396)

ERAKUSKETAK

- Alondegian (egunero 18:00-20:00)
- Maiatzaren 4tik 17ra: JOSU ARRIETA
- Maiatzaren 20tik 28ra: BI ARRI – Eskulan tailerretako lanak.
- Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra: Forondako Pintura Tailerraren lanak

GAZTETXOLA

- Maiatzaren 12an MAHAI JOKUAK
- Maiatzaren 19, 20 eta 26an ZERAMIKA TAILERRA
- Maiatzaren 27an: ZARAUTZEKO GAZTELEKURA

IKASTAROKAK

- Photoshop: maiatzaren 3tik 31ra. Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19:00etan, kultur etxean. Izenematea: 943-861056/
foronda@zumaia.net

MAIATZA

- Ostirala, 12:
22:00etan, Amnistiaren aldeko MUS TXAPELKETA. Izen ematea: Inpernupen.
- 22:00etan, Aita Mari aretoan, IKER GOENAGAREN Kontzertua.
- Larunbata, 13
Udal Musika Bandaren Kontzertu didaktikoa
- Osteguna, 18:
22:15ean, zine forum saioa: "Las llaves de casa".
- Ostirala, 19:
22:00etan, Aita Mari aretoan, antzerkia: TXALO "Erreleboa"
- Igandea, 24:
12:00etan, Foronda kultur etxean, KITARRA AUDIZIOA
- Asteazkena 24:
17:30ean, Haur liburutegian, Ipuin kontaketa (5-8 urte bitartekoentzat)
- Larunbata, 27:
Egunean zehar, ELBIRA ZIPITRIAREN omenez ekitaldiak
- Iluntzean, parrokian, ORFEON DONOSTIARRA ABESBATZAREN kontzertua



Herri Urrats 2006

Senpereko aintziraren inguruan ospatzen da aspalditik Herri Urrats Iparraldeko ikastolen festa. Aurrean joateko asmoa duzenok, nahi beste informazio daukazu honako helbide honetan: www.herriurrats.com

EKAINA

- Osteguna, 1:
22:15ean, zine forum saioa: "Vete y vive"
- Ostirala, 2:
11:00etan, Aita Marin, antzerkia: "ZAPALDU MARRA"- Pikor teatro.

Ikastetxeentzat. Antzezlan bera ekainaren 16ean eskainiko da "irekian"
Igandea, 4:
12:00etan, Aita Marin, haur antzerkia: "Robin eta Hood" - GORAKADA



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIKAKO

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

ERKIBE Inmobiliaria




Api nº 411
Itaki Unanue Manterola



- Etxebizitzen eskaintza eta eskaria
- Higiezin salerosketa
- Alokairuak
- Kontratuak
- Fiskalitatea
- Finantziak

erribera kalea 6, behea tel.: 943860960 fax: 943570273 email: info@erkibe.com



Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330



industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak